



AURKIBIDEA

1 Zein da proiektuaren xedea?

2 Zer landuko dugu?

3 Zergatik eskola orduetan?

4 Nori dago zuzenduta?

5 Arlo nagusiak

6 Helburuak

7 Metodologia

8 Denboralizazioa

9 Ebaluazioa

10 Programazioa

11 Ikasturte bukaerako saioa

12 Laburbilduz

13 Nor gara gu?




ZEIN DA PROIEKTUAREN XEDEA?

Euskal Dantzen eta Errituen proiektuaren helburua Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei, eskola orduetan eta asteen behin, **euskal dantzen eta errituen irakaskuntza espezifikoa eta kalitatezkoa eskaintzea** da. Proiektu honen bidez, ikasleek gure **ondare kultural aberatsean murgiltzeko aukera** izango dute, dantza, musika, jolas, eskulan, abesti eta ipuinen bitartez.

Gure proiektuaren xede nagusia ikasleen arteko **parte-hartzea sustatzea** eta **kulturaren bidez gozatzeko eta ikasteko esperientzia bizia sortzea** da. Horrela, **haurrak ezagutzen duten mundua: kulturaren eta artearen ikuspegitik zabaltzen da**, eta euskal tradizioekin lotura emozional eta intelektualak garatzen duten bitartean, Euskal dantza ezanguratsuenak ikasiko dituzte, erromerietako partaidea aktiboa bilakatuz, herrietako euskal dantza taldeak hornituz eta beraz...

Herri bihurtzeko, herria egiteko eta gure ondarea zabaltzeko




Antzerkiak

ZER LANDUKO DUGU?

KONPETENTZIAK

Gure proiektuaren bidez, ikasleek ahozketasuna, gorputz adierazmena eta gizarte-gaitasunak modu integralean garatuko dituzte, dantzaren, mugimenduaren eta euskal kulturaren bitartez.



1

Hitzezko komunikazioa

Abesti, kontakizun eta erritual txikien bidez, ikasleek entzutea, ulertzea eta ahoz adieraztea praktikatu dute, euskararen erabilera naturala sustatuz.



2

Hitzik gabeko komunikazioa

Gorputza, erritmoa eta musika erabiliz emozioak adierazten ikasiko dute, sormen eta askatasun adierazkorra bultzatuz.




3


Gizarte-trebetasunak

Talde-dantzak eta erritu partekatuek erabiliz, elkarlana, errespetua eta kooperazioa landuko dituzte, harreman osasuntsuak eta hizkuntza-ohitura baikorrak sustatuz.


ZERGATIK ESKOLA ORDUETAN?



- **Parte-hartze integrala:** Ikasleek taldean modu aktiboan parte hartuko dute, elkarlana eta kooperazioa sustatuz.
- **Hezkuntza emozionala:** Dantza eta errituen bidez, ikasleek emozioak identifikatu, kudeatu eta adierazten ikasiko dute.
- **Hizkuntza bizia:** Ahozkotasuna landuko eta eguneroko ikasgaietan erabilera naturala sustatuko da.
- **Kultura eta ondarearen transmisioa:** Euskal tradizioak, ohiturak eta errituak zuzenean esperimendatuko dituzte, ikasgelan integratuz.



NORI DAGO ZUZENDUTA?



Proiektua Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago. Adin-tarte honetan, haurrak mugimendu, erritmo eta musika bidez komunikatzen bait dira, eta ikaskuntza esperientzial, ludiko eta parte-hartzailean bizi direlako.


Euskal dantzen eta errituen bidezko jarduerak baliabide egoki eta aberasgarriak dira haien garapen integrala sustatzeko. Jardueretan, ikasleek gorputz-adierazpena, erritmo-sena eta koordinazioa landuko dituzte, baita elkarlana, errespetua eta taldearekiko konfiantza bezalako balioak ere.

HERRIETAKO DANTZARI GAZTEAK BILAKATUKO DIRA!



ZEINTZUK DIRA ARLO NAGUSIAK?

ZE HAR LERROAK



Hizkuntza normalkuntza

Euskararen erabilera eta normalizazioa.
Hizkuntza-ohiturak indartu.




Inklusioa, ingurugiroa eta gizarte-trebetasunak

Bizikidetza baikorra.
Errespetuzko harremanak.
Ingurumenaren zaintza.
kulturaren jabe eta igorle.

Hezkidetza eta genero-ikuspegia

Genero-rolen eta estereotipoen gaineko hausnarketa.
Ikuspegi inklusiboa.



Ikaskuntza integrala eta sormena


Alboko pentsamendua.
Sormena indartzea.

Tradizioa
berrikuntza
bihurtuz



HELBURUAK

Proiektu honen helburua ikasleen garapen integrala bultzatzea da, euskal dantza eta errituen bidez, euskararen erabilera, psikomotrizitatea, sormena, adierazkortasuna eta harreman parekideak lantuz.



1

NORMALIZAZIOA


Euskararen
erabilera



2

FISIKO-LUDIKOA

Psikomotrizitatea
eta gorputz-
adierazpena




3

Euskal dantzak
ikasi, barneratu
eta gozatu.

IDENTITATEA

Erromeriak eta
euskal dantza
taldeak hornitu




zer baloratzen
naizena dut g
nire burua mait
ikusten dudana
zait?

4

ARTEA ETA
KULTURA

Sormena eta
irudimena



5

INTEGRAZIOA

Harreman
parekideak eta
Herri-dinamika
sanoak



METODOLOGIA

NOLA LORTUKO DUGU?



Gure proiektua ikastaldearen ezaugarrietara egokituta dago, eta Euskal herriko eskolekin lankidetzan garatuko da. Bizipen-ikaskuntza, jolas eta parte-hartze aktiboan oinarrituta, euskal dantza hezkuntza-baliabide bihurtzen da, hizkuntza, kultura eta gizarte-trebetasunak sustatzeko.

1 Euskal dantzen bizipen-ikaskuntza

Saio dinamiko eta ludikoetan, ikasleek erritmoa, koordinazioa, gorputz-adierazpena eta talde-mugimendua lantzen dituzte.



2 Euskal kultura eta errituak

Dantza bakoitzak testuinguru kultural bat izango du, ipuin, irudi edo objektu tradizionalekin. Dantzen jatorria, zentzua eta tokiko errituak jorratuko dira.

3 Gizarte eta bizikidetzatrebetasunak

Talde-dantzak eta jolas kooperatiboak elkarlana, errespetua eta konfiantza lantzeko aukera paregabea dira.



DENBORALIZAZIOA



1

Hiruhilekoa

Jolas eta dantza ariketa dibertigarriak proposatuko ditugu, ikasleek gorputz-adierazpena, erritmoa eta koordinazioa lantzeko. Taldearen lehen harremanak ezagutzeko eta ikasle bakoitzaren indarguneak eta interesak identifikatzeko saioak egingo dira, talde-lana eta elkarlana sustatuz.

2

Hiruhilekoa

Dantza eta erritu tradizionalak modu praktiko batean landuko ditugu. Lehen hiruhilekoan ikasitako trebetasun sozialak eta adierazpen-gaitasunak taldean praktikan jarriko dira, eta ikasleek elkarren arteko harremanak eta gatazken konponbidea modu aktiboan lantzen ikasiko dute.

3

Hiruhilekoa

Ikasitako dantzak eta errituak antzeztuko dira, talde osoa elkartuta eta konprometituta egon dadin sustatuz. Amaieran, ikuskizun edo ekintza irekia antolatuko da, ikasleek euren lana aurkeztu eta esperientzia ahaztezina bizitzeko aukera izan dezaten.

EBALUAZIOA

ZER EBALUTUKO DA?

Euskararen erabilera

- Ikasleek jarduera guztietan euskaraz aritzea.
- Ikasleek ahozko jardueretan parte hartzea.
- Ikasleek euskararekiko jarrera positiboa garatzea.



Psikomotrizitatea eta gorputz-adierazpena

- Ikasleek koordinazioa eta erritmoa lantzea.
- Ikasleek gorputz-adierazpenean parte hartze aktiboa izatea.



Autonomia, sormena eta irudimena

- Ikasleek jarduera sortzaileetan modu autonomoan parte hartzea.
- Ikasleek ideiak eta emozioak modu artistikoan adieraztea.



Talde-dinamika eta harreman parekideak

- Ikasleek talde-lanean parte hartzea.
- Ikasleek errespetua eta elkarreragina hobetzea.

EBALUAZIOA

NORK EBALUATUKO DU?

Ebaluazioan Euskal Dantza eta Errituen proiektuan aritutako eragile zein erabiltzaile guztiek parte hartuko dute.

1

**Udaleko Euskara
teknikariak**

2

**Ikastetxeko
zuzendaritza-taldeak**

3


Gelako tutoreak

4

**Proiektuaren
irakasleak**


5

Ikasleak



EBALUAZIOA

EBALUAZIOA EGITEKO
EUSKARRIAK



Aurretxostena

AURRET XOSTENA

ESKOLA: []
TALEXA: 4A
TUTORA: Yolanda Arana
KONTAKTUA: []

Taldea lehenetsiaren lehenengo ikasleak dira, beraz, lehenetsiaren lehenengo ikasleak dira. Lehenetsiaren lehenengo ikasleak dira, beraz, lehenetsiaren lehenengo ikasleak dira.

Behar bezalak?

Normalkuntza lehenetsi

Irakasleen ebaluazio txostena

IRAKASLEEN EBALUAZIO TXOSTENA

Irakaslearen izena: []


Irakaslearen kategoria: []

Irakaslearen adina: []

Irakaslearen sexu: []

Irakaslearen beste datuak: []

Ikasleen ebaluazio txostena




IRAKASLEEN BALORAZIOA

Hiruhileko guztien hasieran, helburuak jartzeko, irakasleekin batera lan egingo dugu. Helburu horiek, ikasleen beharrianetara moldatzeko. Helburu hauek hiruhilekoan zehar eraldatu daitezke.

Hiruhilekoaren bukaeran balorazio ebaluazio txostena beteko dugu eta lortutako helburuak ebaluatuko ditugu.

Talde entzumena landu dute, begirunezko tratua sustatuz.



Euskara ikuspuntu ludiko batetik landu dute.

Hitz berriak ezagutu eta erabili dituzte. Saioetan euskera gehiago entzun egin da.



PROGRAMAZIOA

LEHENENGO HIRUHILEKOA

Unitatea	Helburuak	Ariketa nagusia	Amaiera
1 	Ikasleiei programa eta oinarritzko arauak aurkeztea eta elkar ezagutza sustatzea	Aurkezpen jolas erritmikoa eta jota entzutea	Euskarazko abestia saioa agurtzeko
2 	Jota eta Porruaken oinarritzko urratsak ezagutzea	Besoen lehen urratsak eta mugimenduak ikastea	Erritmo-jolas kooperatiboa
3 	Koordinazioa eta erritmoa lantzea	Sekuentzia sinpleen errepikapena eta musika akonpainamendua	Dantzatzean sorturiko sentimenduen hausnarketa
4 	Jotaren kulturarako sarrera	Dantzaren jatorria eta testuinguruak azaltzea	Kanta tradizional laburra saioa agurtzeko
5 	Urratsak integratzea eta emozioak adieraztea	Ikasitako pausoekin koreografia txikia	Talde-imitazioko jolasa
6 	Koordinazioa eta memoria motorra hobetzea	Sekuentzia konbinatuen entsegua	Urratsen ezagupen jolasa
7 	Gorputz-adierazpena eta sormena lantzea	Jotaren aldaketa askeak	Taldeko hausnarketa

8 	Hizkuntza eta kultura integratzea	Urratsen euskarazko hiztegia ikastea	Euskarazko abestia saioa agurtzeko
9 	Arrimatekoei sarrea ematea eta bikote eta talde arauak lantzea	Arrimatekoen azalpena eta oinarritzko pausuak bikoteka	Agur eta erritmo jolas kooperatiboa
10 	Bikotekidearekiko koordinazioa praktikatzea	Binakako sekuentzia sinpleen trebakuntza	Lankidetzari buruzko hausnarketa
11 	Erritmo musikalaren integrazioa	Dantza osoa musika tradizionalarekin	Taldeko abesti laburra

PROGRAMAZIOA

BIGARREN HIRUHILEKOA

Unitatea	Helburuak	Ariketa nagusia	Amaiera
12 	Arrimartekoekin sormena bultzatzea	Bikoteka mungimenduen aldaketa askeak	Talde-imitazioko jolasa
13 	Jauzie sarrera ematea	Oinarrizko jauzien azalpena eta praktika	Oreka jolasa
14 	Jauziekin koordinazioa eta erritmoa lantzea	Jauzien sekuentziak musikarekin bateratuak	Esfortzuari eta energiari buruzko hausnarketa
15 	Adierazpen emozionalean sakontzea	Sormen aldaketak jauziekin	Jolas kooperatiboa
16 	Landutako pausuen integrazioa barneratzea	Ikasitako urrats guztien konbinazioa	Taldeko amaierako abestia
17 	Soka dantzari sarrera ematea eta talde-koordinazioan sakontzea	Azalpena eta zirkulu mungimenduen praktika	Lankideak aintzatesteko jolasa
18 	Koordinazio eta erritmoa lantzea	Zirkuluko sekuentzien entsegua sokekin	Lankidetasunaren inguruko hausnarketa
19 	Gorputz adierazpena eta sormena garatzea	Koreografia aldaketa askeak	Talde abestia

Unitatea	Helburuak	Ariketa nagusia	Amaiera
20 	Landutako pausuak bateratzea	Dantza talde osoan	Taldeak izandako lorpenen par
21 	Kontradantzari sarrera ematea eta bikote koordinazioan sakontzea	Kontradantzaren oinarrizko urratsak	Bikoteka agurtzeko jolasa
22 	Koordinazio eta erritmoa lantzea	Sekuentziak musika tradizionalarekin	Talde hausnarketa

PROGRAMAZIOA


HIRUGARREN HIRUHILEKOA

Unitatea	Helburuak	Ariketa nagusia	Amaiera
23 	Adierazpen sortzailea	Bariazio askeak dantzaren barruan	Jolas kooperatiboa
24 	Integrazioa eta koreografia	Dantza osoa bikoteekin eta taldeekin	Taldearen amaierako abestia
25 	Ingurutxoak: sarrera, mugimendu zirkularrak	Azalpena eta oinarrizko praktika	Talde-konexioko jolasa
26 	Koordinazioa eta erritmoa	Sekuentzia zirkularrak musikarekin	Lankidetzari buruzko hausnarketa laburra
27 	Adierazpena eta sormena	Bariazio askeak zirkuluan	Taldearen azken kanta
28 	Pasabideak integratzea	Dantza osoa parte hartzaile guztiekin	Talde-kohesioko jolasa
29 	Euskal inauterien tradizioa ezagutu eta antzerki adierazpena lantzea.	Lantz inauterien aurkezpena eta zortzikoaren lehenengo urratsak barneratu	Luzapenak musika lasaiarekin eta lantz inauteriei buruzko bideo txikia


Unitatea	Helburuak	Ariketa nagusia	Amaiera
30 	Mugimendu bereizgarrien ikaskuntza. Imitazioa, dramatizazioa eta erritmoa. Gorputz-adierazpena eta teatralizazioa.	Zortzikoarekin amaitu, hau da, dantza osoa burutu. Lantzeko inauteria antzerkia egin	Luzapenak musika lasaiarekin
31 	Jota eta Porruak, arrimatekoak, jauziak eta soka dantzen errepasoa	Koreografia osoak Ikasitako sekuentzia guztien entsegua	Talde-hausnarketa laburra Abestia edo jolas kooperatiboa
32 	Kontradantzak, ingurutxoak eta Lantz inauteriaren errepasoa Azken erakustaldia eta itxiera	Errepertorioaren entsegu orokorra	Iruzkina eta taldearen balorazioa Ikaskuntzei eta emozioei buruzko gogoeta, agurra

IKASTURTE BUKAERAKO SAIOA

Ikasturtea bukatzerakoan taldeak ikasitako guztiarekin azken emanaldi bat egingo du guraso ikaslagun edo heritarren aurrean. Halaber ikasitako guztia herrietako erromeria eta jaietan erabiltzeko tresna paregabea izango da eta kulturaren transmizioan protagonista .



LABURBILDUZ...



Euskal dantza proiektua Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei euskararen erabilera, adierazpen-gaitasunak eta garapen integrala sustatzeko aukera eskaintzen du, dantza, musika, jolas eta ipuinen bidez.

Proiektua bukatzerakoak, erromerietan dantzatzen ditugun dantzak ikasiko dituzte, haien herriko kultura ezagutuko dute, Euskal kulturaren jabe eta igorle izango dira. Herrietako euskal dantza taldeak elikatzeko motibazio iturri izan daiteke.

Hezkuntza esperientzia hau bizi bitartean, taldea sendotu, jarrera toxikoetatik aldendu eta ahozkotasuna landuko dute.

NOR GARA GU?



1

2009. Urtean hasi ginen lanean

"Antzerkhizkuntzan" eskarmentu handia dugu berrikuntza proiektuetan.

2

Profesionalak

Esperientzia eta profesionaltasun egiaztatua dituen hezitzaile, psikologo eta irakasle talde bat gara,.

3

Arrakasta

Gure proiektuek arrakasta handia izan dute Bizkai, Araba eta Gipuzkoako Ikastetxetan



KONTAKTUA



FACEBOOK

@antzerkizkuntza



INSTAGRAM

@antzerk_hizkuntza




YOUTUBE

www.youtube.com/antzerkhizkuntza



LINKEDIN

www.linkedin.com/in/garikoitz-lasa-iglesias/



TELEFONOA

652 75 97 94

635 73 63 60



WEB www.antzerkhizkuntza.com



E-MAILA

info@antzerkhizkuntza.com

ESKERRIK ASKO!

"Eskailera lagun, ilargia hartu dezagun"
Antzerkizkuntza, zure laguntza!

